

# noaua



**Amaitu dira Irisasi BTT  
Hotzak Akabatzen  
probarako dortsalak**

**Andatzako errotarriak  
ezagutzeko ibilbidea  
aurkeztu dute**

**Ana Merino literatura irakaslea:  
“Usurbilgo udal liburutegiko  
erabiltzaileok zorte handia dugu”**

Usurbilen,  
zure auto-tailerra



Eusebio

Ramon



**Atallu**

**AUTOAK**

Motorra  
Balaztak  
Mekanika  
Esekidurak  
IAT-aurrekoa  
Pneumatikoak  
Ihes Kanalizazioak  
Injekzio Elektronikoa  
Berehalako Zerbitzua

DOHAIZNIK



Atallu industrialdea, Oria kalea 4 / Usurbil 20170 / 943 37 74 78 / atalluautoak@gmail.com

# HHI-EPA USURBIL HELDUEN ESKOLA

## Matrikula epea zabalik

(aldez aurretik telefonoz hitzordua eskatu 943 37 64 43- 943 36 66 08 )

### •HEZKUNTZA OROKORRA

(Oinarrizko kultur formakuntza: Euskara, Ingelera, Gaztelania, Irakurketa, Idazketa.

Kalkuloan hastapena eta hobekuntza. Memoria lantzeko joko linguistikoak eta joko matematikoak. Natur Zientziak. Geografia. Historia eta historiarekin erlazionaturako mugimendu artistikoak...)

- **DBH-ko titulua** (4 hilabeteko ikastaroak)
- **EUSKARA TAILERRA (MAILA 1 ETA 2)**
- **GAZTELANIA ATZERRITARRENTZAT**
- **IRTEERA DIDAKTIKOAK URTEAN ZEHAR**



**ARGIBIDEAK: 943 36 66 08**

**noa.ua**



Askorako eman dute 25 urtek. 1996. urtean usurbildar askoren inplikazioari esker izugarritzko bultzada izan zuen Noaua Kultur Elkartearen sorrerak.

Herria Herritik egiteko bultzada jaio zen usurbildarren bihotzetik eta eskuz esku mantendu da indar hau denbora guzti honetan zehar.

### HARTUKO DUZU ERRONKA? EGIN BAZKIDE!

Zurekin batera beste 25 urte (gutxienez) Herria Herritik egiten jarraitzeko erronkan parte hartzera animatu nahi zaitugu.

**40€  
URTEAN**

30 urte baino gutxiago dituzu?  
Bazkide izatea erraztu nahi dizugu!  
**25 € / URTEAN\***  
\* 30 urte betetzen automatikoki bazkideztza arrunta izatera pasako da.

### ABANTAILAK

Abantaila nagusia herriarentzat izango da. Noaua Kultur Elkartearen eragile garrantzitsua da herriko bizitza kulturala, aisialdia, etabar bizirik mantentzeko. Baina zuk ere abantaila batzuk izango dituzu:

- Zozketak.
- Deskontuak kultur ekimenetako sarreretan.
- Datorren urteko errenta aitortpenean hoberia jasoko duzu.
- Usurbildik kanpora bizi diren herritarrei, aldizkaria astero posta arruntez jaso aukera.

3 modu dituzu bazkide egiteko:



ESKANEATU



Bete beheko inprimakia eta bulegora ekarri



Webgunearen bidez  
noaua.eus/bazkidetu



Telefonoz  
943 360 321

Izena \_\_\_\_\_

Abizenak \_\_\_\_\_

Nortasun agiria \_\_\_\_\_

Helbidea \_\_\_\_\_

Herria \_\_\_\_\_

Posta kodea \_\_\_\_\_

Telefonoa \_\_\_\_\_

Posta elektronikoa \_\_\_\_\_

Kontu zenbakia (IBAN) \_\_\_\_\_

Bazkideztza mota  Arrunta (40 €)  <30 urte (25 €)

Jaiotze data \_\_\_\_\_

noaua.eus

## Albisteak iruditan

# Danborrada, aterpetik

**S**an Sebastian bezpera hotz eta bustia girotu zuten Udarregi Ikastolako HH eta LH-ko ikasleek, egun horretan zen giroagatik Agerialdeko frontoian eskaini behar izan zuten danborradarekin. Aterpetik gogotsu eta erritmo bizian jo zuten danborra, urtarrilaren 20ko abesti ezagunen erritmora. Emanaldia ikasleek beraiek zuzendu zuten. Bi urteko etenaldiaren ostean, oraingoan bai, senide eta lagunek hurbiletik ikusi ahal izan zuten gaztetxoon saioa.

Neguko ospakizunak abiatu baino ez dituzte egin ikastetxeetan. Urte amaierako gabonetako kantu saioen eta danborrada emanaldion ostean, ate joka ditugu otsaileko Santa Ageda bezpera eta Inauteriak!



Danborrada emanaldiaren ondoren, ate joka ditugu otsaileko Santa Ageda bezpera eta Inauteri jaia.

## Laburrean

## Ostiralean, Sareren mobilizazioa

Sarek deitutako euskal presoen eskubi-deen aldeko hileroko mobilizazioa ostiral honetan egingo da, iluntzeko 20:00etan hasita. Ohi bezala, Mikel Laboa plazan elkartuko dira.

## Larunbat eguerdian, kantu-jira

Usurbilgo Euskal Kantu Taldekoak plazara itzuliko dira berriz, larunbat honetarako deitua duen kantu-jirarekin. 12:00etan abiatuko dira Mikel Laboa plazatik. Ez ahaztu kantu-liburuxka.

## 0,00 intzidentzia du Covid-19ak Usurbilen

100.000 biztanleko 14 eguneko 0,00ko intzidentzia du koronabirusak Usurbilen. Irailaren 25az geroztik koronabirusak ez du hain intzidentzia baxua izan gure herrian.

# noaua

Kultur Elkartea  
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil  
943 360 321 /// elkarte@noaua.eus /// www.noaua.eus  
Jendaurrreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

**Elkarteko lehendakaria:**  
Idoia Torregarai.  
**Aldizkariko koordinatzailea:**  
Imanol Ubeda.  
**Idazkaria:** Alaitz Aizpurua.  
**Diseinua:** Erroitz S. L.

**Erredakzio kontseilua:**  
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

**Publizitatea:** Beatriz Alda,  
publizitatea@noaua.eus

**Banaketa:** Iñaki Irazusta,  
Iban Maritxalar.  
**Tirada:** 2.930 ale.  
**Lege-Gordailua:** SS-668-96  
**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu  
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

**Harremanetarako:**  
erredakzioa@noaua.eus



## Gipuzkoako Foru Aldundia





Luis Aranalde

**J**aunaren mahastiko lan-gile xume bat izan nahi dut, zioen Ratzinger kardinalak Aita Santu izendatu zutenean 2005eko apirilaren 19an. Benedikto XVI.a izena hartu zuen. Bere karguari uko egin zion 2013ko otsailaren 28an.

Duela egun batzuk zendu da Erroman. Bere aldeko hileta ospatu berria da Erroman eta baita Donostian ere. Bere bizitza sakonki aztertu dutenek, bere ibilbide luzean lau etapa azpimarratzen dituzte.

1- Kontzilio Vatikanoko II.ean (hirurogeiko hamarkadan) Hans Kung-ek eta biek kontzilio erreformen aldeko apustu garbia egin zuten, hau da, eliza mundu modernora hurbildu zedin saiatu ziren (Hans Kung teologo handia 2021ean hil zen eta jakin berria dut Frantzisko gure Aita Santuak ez ziola kendu nahita edo nahi gabe dio Joxe Arregik, aspaldi Ratzingerrek jarri zion “teologo ez katoliko” aipu edo izen txarra). Eginkizun horretan aritu zen buru-belarri Benedikto XVI.a Kontzilio Vatikanoko II.aren garaian. Epoka honetan garbi utzi zuen zein beharrezkoa zen elizarentzat bere botere eta harrokeria estilo hura baztertzeko behin betiko eta autokritika serio bat egitea. “Fardo eta pribilegio material eta politikoetatik liberatutako eliza bat” eska-

## Polemikaz betetako agintaldia



“Goraipatu nahi nuke emeritu bezala Frantziskoren lana ez oztopatzeko izan duen diskrezioa”.

### LUIS ARANALDE

**“Egia da bere zenbait hitzalditan laikoaren protagonismoa azpimarratzen zuela, baina halere sendotu besterik ez zuen egin elizaren klerikalismoa”**

tzen zuen Ratzinger-ek. Garai hartan, teologo progresista edo aitzindariaren eredu izan zen.

2- Fedearen Dotrinaren Kongregazioko buru jarri zuen Joan Pablo II.ak. Hogei urtez iraun zuen kargu horretan, 1981ean hasi eta Aita Santu izendatu arte 2003an. Elizak irakasten duen dotrina zaintzea da erakunde horren ardura. Kontzilio garaian ikusi dugun Joseph Ratzinger ireki eta progresista honek sekulako aldaketa eman zuen orduan; elizaren tesia kontserbadoreenak defendatu zituen buru-belarri eta zigortu azkar berak jarritako bidetik ateratzen zen guztia. Erantzukizun hori izan zuen bitartean, gogor

jardun zen batez ere Askapenaren Teologiaren kontra. Hego Amerikako teologoak batez ere zigortu zituen gupida gabe. Horietako batek, Leonardo Boff-ek dio ehun bat teologo zigortu zituela, bera barne: batzuei katedra kendu, besteak irakasteko baimenik gabe utzi eta asko eta asko isilarazi. Ez zuen inongo malgutasunik agertu.

3- Aitasantutza garaian. Espiritu nahiko kontserbadorearekin aritu zen, eliza zentralista baten apustua egin zuen. Egia da bere zenbait hitzalditan laikoaren protagonismoa azpimarratzen zuela, baina halere sendotu besterik ez zuen egin elizaren klerikalismoa. Elizaren estilo hori Frantzisko Aita Santuak ere kritikatu du. Azken batean, oztopatu egin zuen Kontzilio Vatikanoko II.aren hasierako estilo berritzaile eta iraultzaile hura, eta hori, bai edukian eta bai forman.

4- Ustekabeko ukapena. 2013ko otsailaren 28an uko egin zion aitasantutzari. Aita Santu

emeritu titulua eman zioten. Elizaren historia osoan ezohiko erabaki bat izan zen eta meritu handikoa. Aita Santu batek bakarrik egin zuen berdin kristautasunaren historia guztian: San Zelestino V.ak 1294an. Monje beneditar bat zen eta aho batez eliztarrek Aita Santu aukeratu zuten, hainbestekoa zen eta bere santu fama. Baina Erromako gehiegikeriak eta kuxidadea ikusi ondoren esan zion bere buruari: “Hau ez duk niretzat egiten den lana. Banoak hemendik monasteriora berriro”. Bost hilabete bakarrik iraun zuen bere aitasantutza karguan.

Askorentzat ukapen bat baino gehiago aurrerapausu ausart bat izan zen Benedikto XVI.aren ekimen hura; izan ere, horrela aitortzen zuen apaltasunez eta publikoki bere karguari ondo erantzuteko zituen zailtasunak. Zerbitzu bokazioaren testigutza bikain bat izan zen bere karguari uko egitea. Eta amaitzeko: gorai-patu nahi nuke emeritu bezala Frantziskoren lana ez oztopatzeko izan duen diskrezioa. Leonardo Boffek dio: “Nahiz eta muga handiak zituen, pertsona orok bezala, bere bertuteengatik eta batez ere bere agertu zuen apaltasunagatik karguari uko egitean, zintzoen eta zorionsuen artean kontatua izango da”. Atsedean harbeza Aita Santu emerituak.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpirotz Eizmendi

Luis Aranalde

Ugaitz Agirre Zapirain

### Komikia



# Ernai: “Usurbilgo gazteen %83ak bere osasun mentala artatzeko beharra sentitu du”

Usurbilgo Ernaik udazkenean abian jarritako osasun mentalaren inguruko lanketarekin aurrera jarraitzea erabaki dute, herriko gazteen artean zabalduko galdetegiko emaitzak jaso eta ezagutarazi ondoren.

“Herriko gazteen osasun psikosozialaren egoera erreala zein den identifikatzeko” egitasmoa abiatu zuen Usurbilgo Ernaik udazkenean, hausnarketarekin. “Gazteongan kezka handienak sortzen dituzten faktoreak identifikatzeko aldera, entzute prozesu batekin hasiko dugu dinamika, berau oinarritik ahalik eta partehartzailleena izan dadin”, iragarri zuten herriko gazte antolakundetik. Sare sozialetan zintzilikatu zuten galdetegi osatzera animatu zituzten herriko gazteek.

## Gaiari ez zaio behar besteko garrantzia ematen familian edo lagunartean

Egunotan argitaratu dituzte emaitza nagusiak. Galdetegian parte hartu duten ia denek azken urteotan haien osasun mentala artatzeko beharra sentitu dutela diote; aldiz, erdiak, “%55ak soilik jarri dio arreta”.



Zenbait gai jorrazteko nahia agertu dute galdetegian parte hartu duten gazteek: drogomenpekotasuna, antsietatea, sexualitatea edota harremanei buruzko lanketa. Argazkia: Nik Shuliahin (unsplash.com).

## PREMIAZKO GAIA

**“Galdetegian parte hartu duten ia denek azken urteotan haien osasun mentala artatzeko beharra sentitu dutela diote; aldiz, %55ak soilik jarri dio arreta”**

Ingurune hurbilean, lagunartean edo familian gai honi nahi edo behar besteko lekua ere ez zaiola egiten diote galdetegian parte hartu duten herriko gazteek. Ildo beretik, zenbait gai

jorrazteko nahia agertu dute; drogomenpekotasunari, antsietateari, sexualitateari edota harremanei buruzko lanketak bideratzeko. Bereziki galdetegi osatu duten emakume gazteek agertu dute hizpideok ahotan hartzeko gogoia.

## Gai hautatuenak lantzeraz

Usurbilgo Ernaik egitasmo hau abiatzeaz zuela argi zioen sare sozialen bidez: “Herriko gazteek osasun mentalarikiko daukagun hurbiltasuna neurtzeaz gain, ditugun behar eta interesak identifikatuko

ditugu, gazteontzat esanguratsuenak diren gaiak biltzeko eta hauekin lanketa ezberdinak bideratzeko”. Galdetegiko emaitzak eskuartean izanda, halaxe egitea erabaki duela berri eman du. “Osasun mentalaren proiektuarekin aurrera goaz!”. Eman asmo duten hurrengo pausoa zein izango den aurreratu dute. “Marko orokor honetatik abiatuta, hurrengo urratsera bideratzeko ordua da. Hautatuenak izan diren gaien inguruko lanketa eta tailerren prestakuntzarekin martxan gara”.

## Galdetegian bildutako ondorio nagusiak

■ Usurbilgo gazteen %83ak azken urteetan bere osasun mentala artatzeko beharra sentitu du eta %55ak soilik jarri dio arreta.

■ Osasun mentalaren inguruan interesa erakutsi duten gazteen %67,5a emakumeak dira.

■ Usurbilgo gazteen %42,6ak osasun mentalaren gaiak lagunartean duen presentzia ez

dela nahikoa diote.

■ Familiartean osasun mentalaren gaiak duen presentzia ez dela asegarria diote Usurbilgo gizon gazteen %85,6ak.

■ Usurbilgo emakume gazteen %34,4 lagunartean osasun mentalaren gaiak duen presentziarekin asetuta daude; %14,2 gizonen kasuan.

■ Osasun mentalarikiko loturak hainbat gairen artean,

Usurbilgo gazteen %72,3ak harremanak jorrazteko interesa adierazi du.

■ Usurbilgo gazteen %25,6ak drogomenpekotasunaren inguruan hitz egiteko nahia du; horietatik %50 emakumeak.

■ Usurbilgo gizonen %28,6ak eta emakumeen %53,1ak antsietatearen inguruko lanketaren bat nahiko lukete.

■ Sexualitatea lantzeko behar

ra ikusten dutenen artean %84,6a emakumezkoak dira eta %15,4a gizonzkoak.

■ Inkesta erantzun dutenen %38,3ak hezkuntza eta osasun mentalaren gaia landu nahiko lukete.

■ Usurbilgo gizon gazteen artean %57,1ak hezkuntza eta osasun mentalaren gaiarekiko interes handia du.

■ Iturria: Usurbilgo Ernai.

# Ana Merino: “Literaturarekiko dudan pasioa transmititzen ona naizela uste dut”

**L**iteraturazalea bazara eta udal liburutegiko martxa jarraitzen baduzu, bere aurpegia ezaguna egingo zaizu. Ana Merinok Sutegiko gaztelarazko literatura solasaldiak gidatzen ditu. Gauza bera egiten du Donostiako kultur etxe ezberdinetan. Horretaz gain, idazketa tailerrak eskaintzen ditu. Sarean ere aurkituko duzue. Duela hamar urte blog batean idazten hasi zen (serescritor.com) eta podcast batean ere hartzen du parte: [www.spreaker.com/show/serescritor](http://www.spreaker.com/show/serescritor). Literatura ofizioa izateaz gain, pasio handia da gure elkarrizketatuarentzat. Donostiarra, aspalditik bizi da Usurbilen eta bere ogibideari buruzko argibideak eskaintzeaz gain, hainbat literatur gomendio egin dizkigu.

**NOAUA! Irakurle talde bat baino gehiago gidatzen duzu, tailerrak eskaintzen dituzu, aurkezle lanak egin dituzu Donostiako Literaktum jaialdian... Nola definituko zenuke zure burua?**

**Ana Merino:** Literatura irakaslea naizela diot beti. Baina ez naiz eskola batean lan egiten duen irakasle horietako bat. Helduekin egiten dut lan. Eta zergatik helduekin eta ez gaztetxoekin? Ba hasi, umeekin hasi nintzen akademia batean. 25 urtetik gorako helduekin ere banuen beste talde bat. Beraz, umeekin zein helduekin lan egiteko aukera izan nuen. Eta umeekin oso gaizki pasa nuen. Ez naiz gaztetxoei eskolak emateko gai sentitzen. Ez ziren gustura etortzen eta lan bikoitza egin beharra nuen: literatura gustuko bilakatu eta irakatsi beharrekoa irakatsi.

**Aldea hor dago: helduak beren borondatez hurbiltzen dira idazketa tailerretara.**



“Batxillergoa ikasi nuen garaian literatura irakasle on bat izan genuen. Eragin handia izan zuen nigan. Liburuekiko lilura garai horretan piztu zitzaidan”.

## ANA MERINO

**“Zergatik iritsi zaizkigun pertsonaiak barruraino, nola eraikia dagoen nobela, zer nolako egitura duen...”**

**Hori dena ikustarazten saiatzen naiz. Horregatik diot nik literatura irakasten dudala”**

Hori da, gogotsu etortzen dira eta nik bakarrik egin behar dudana da eskola eman eta gozatu. Beste zereginetan ere, solasaldi literarioetan edota literaturaren gaineko beste jardueretan gozatu egiten dut. Zentzu

horretan, literaturarekiko dudan pasioa transmititzen ona naizela uste dut. Horregatik esan ohi dut ni literatura irakaslea naizela. Liburu batek zergatik negar edo barre eginarazi dion; pertsonaiak zergatik iritsi zaizkion barruraino; nola eraikia dagoen nobela; zer nolako egitura duen... Hori dena ikustarazten saiatzen naiz. Horregatik diot nik literatura irakasten dudala.

**Nondik datorkizu literaturarekiko pasioa?**

Donostiako Usandizaga institutuan batxillergoa ikasi nuen eta literatura irakasle on bat izan genuen. Eragin handia izan zuen nigan. Ahots zoragarria

zuen, sakona. Gelara sartu eta lehenbiziko gauza irakurri egiten zuen; boz altuan eta gela osorako. Literaturarekiko lilura garai horretan piztu zitzaidan. Liburuaren inguruko iruzkinak idazten genituen eta oso eroso sentitzen nintzen horretan. Azterketetan, idatzi bat ematen ziguten eta iruzkina inprobisatu behar zenuen. Eta nik erraztasun handia nuen. Orduantxe erabaki nuen letren aldeko apostua egingo nuela. Kazeritza egin nahi nuen baina Bilbora joan beharra nuen eta azkenean filologia ikastea erabaki nuen.

**Gaur egun gazteak –eta ez hain gazteak– pantailara pegatuta bizi gara. Aisialdiaren eskaintza ere asko zabaldu da. Literaturak lehen zuen pisua galdu du akaso?**

Gaur egun, oso zaila da literatura irakaslea izatea. Ume bat liburu bat irakurtzen has dadin, zu ikusi behar zaitu irakurtzen. Askok irakurri behar duzu eta ez edozer gauza.

Nire ustez, ume direnean nahi dutena hautatzen utzi behar zaie. Garai batean esaten zieten ez hautatzeko beti komikia. Zergatik ez? Txikiei gustuko dutena hautatzen utzi behar zaie. Behin hazten direnean, bideratu egin behar dira. Eta horretarako oso inportantea da asko irakurtzea, jakiteko nondik nora bideratu behar dituzun.

Gaztetxoek, gaur egun, modu indibidualean irakurtzen dute nagusiki. Ez dute amankomunean irakurtzen liburu bat, boz altuan. Ikasleek, nonbait, maila ezberdina dutelako. Nire ustez ordea, oso inportantea da ikasleei gelan bertan irakurtzea. Liburuaren hasiera besterik ez bada. Irakurketa horrek ikasleak sorgindu ditzan.

# “Sutegiko udal liburutegiko arduradunek tandem ona osatzen dute”

**NOAUA!** Irakurle talde bat gidatzen duzu Usurbilgo udal liburutegian. Urtean bizpahiru saio eskaintzen dituzu. Nolakoak dira bilkura horiek?

**Ana Merino:** Gehienak liburua irakurrita etortzen dira. Eta hori oso garrantzitsua da, ze beste tertulia batzuetan jendea solik entzutera hurbiltzen da. Bertan entzundakoak interesa pizten badie, liburua irakurriko dute. Edo ez. Hala esan zidan emakume batek Donostiako tertulia batean. Usurbilgora datozenak ordea, liburua irakurrita etortzen dira eta asko parte hartzen dute solasaldietan. Emakumeak dira nagusi baina hori hala izaten da beti; hemen eta toki guztietan.

## Solasaldi literarioetan zeri ematen diozu garrantzia?

Gaia baino gehiago, nola idatzia dagoen interesatzen zait. Idazleak nolako lengoia erabili duen, nola egituratu duen trama, esaldi laburrak ala luzeak baliatu dituen, adjektibo asko dauden ala ez, figura literarioen alde egin ote duen, erritmoa... Nola idatzia dagoen, hori da gehien interesatzen zaidana.

Solasaldian zehar, parte-hartzaileei galdera ezberdinak egiten dizkiet. Pertsonaien tratamenduz, tramaz... Horrela gidatzen dut tertulia. Etxeko bakardadean irakurtzen dute baina gero denon artean partekatzen dugu irakurritakoa. Iritziaz harago, nobelak azaldu diguna eta idazlearen estiloa



“Zorte handia dugu Usurbilen. Bakartxo Iguaran gehiago ezagutzen dut eta oso ona da. Luxu handi bat. Asko daki, asko irakurtzen du eta irakurleei zein Sutegiko erabiltzaileei laguntzeko garaian esku ona du”.

## SUTEGIKO SOLASALDIAK

**“Bakartxo Iguaranekin prestatzen ditut saioak. Zerrenda bat dugu egina eta bion artean adosten ditugu proposatu beharreko liburuak”**

hobeto uler dezagun. Dena den, solasaldiari ekin aurretik iritzi orokor bat eskatzen diet denei.

**Proposatutako liburuekin beti asmatzen al duzu? Solasaldietara hurbiltzen direnek zer diote?**

Giroa sana da gure artean eta batzuetan esan izan didate: “a zer rolloa, nolatan hautatu duzu liburu hau?”. Solasaldiaren amaieran ordea, beste inpresio bat hartzen dute eta iritzi aldatu ohi dute: “aizu, ba orain ez zaigu hain liburu txarra iruditzen”, kar, kar, kar.

**Eta Sutegiko udal liburutegi-koekin nolakoa da harremana?** Zorte handia dugu Usurbilen. Bakartxok eta Breogánek (liburutegiko arduradunek) tandem ona osatzen dute. Nik Bakartxo Iguaran gehiago ezagutzen dut eta oso ona da. Luxu handi bat. Asko daki,

asko irakurtzen du eta irakurleei zein Sutegiko erabiltzaileei laguntzeko garaian esku ona du. Badaki zer nolako irakurketa aholkatu behar dien udal liburutegiko erabiltzaileei.

**Usurbilgoaz gain, hilabetero proposamen literarioak egiten dituzu Donostiako Okendo zein Tomasene kultur etxeetan.**

Donostiakoetan nik proposaten ditut liburuak. Usurbilen ezberdina da. Bakartxorekin elkartzen naiz eta berarekin prestatzen ditut solasaldiak. Zerrenda bat dugu egina eta bion artean adosten ditugu proposatu beharreko liburuak.

Okindegia-Gozotegia  
**LABE-GOXO**

**txirriStra**  
TABERNA

- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Patxi Latexea

- bazkariak EGUNERO
- afariak: OSTIRAL/LARUNBATA

943 362725  
688 690 361

# Ana Merino: “Aspalditik eskaintzen ditut idazketa tailerrak”



Duela bi hilabete Donostiako Literaktum jaialdian hartu zuen parte. Jesús Carrasco idazlearen *Intemperie* nobelaz jardun zuten Okendo Kultur Etxean eta Ana Merinok gidatu zuen solasaldia. Argazkia: Literaktum.

**NOAUA! Solasaldiak gidatzeaz gain, idazketa tailerrak ere eskaintzen dituzu, ezta?**

**Ana Merino:** Aspalditik ematen ditut idazketa tailerrak. Iaz arte, Kutxa Gelak zikloan aritzen nintzen. Tabakalera 5 urtez izan ginen lanean eta aurretik Donostiako erdigunean. Lehen aipatu dizudan akademian eman nituen lehen urratsak, baina idazketa tailerrak eskaintzen Kutxa Geletan hasi nintzen. Ariketak proposatzen genituen, eta zuzendu eta gero, denon artean aztertzen genituen. Batzuk presentzialak ziren, beste batzuk posta bidezkoak. Iaz ordea, Kutxak bertan behera utzi zituen tailer horiek denak.

Liburuak irakurtzen genituen baina batez ere narrazio laburrak aztertzen genituen. Ipuina da narrazio bat aztertzeko generorik egokiena. Udarregi ikastolan ere kontuan hartu be-

## ANA MERINO

**“Ipuina da narrazio bat aztertzeko generorik egokiena. Udarregi ikastolan ere kontuan hartu beharko luketeela iruditzen zait.**

**Nobelen ordez, ipuinak irakurtaraztea. 5, 10 edo 15 orrikoak. Gelan hasi eta buka dezakezu ipuinaren irakurketa; eta ikasleekin batera aztertzeko aukera ematen dizu gainera”**

harko luketeela iruditzen zait. Nobelen ordez, ipuinak irakurtaraztea. 5, 10 edo 15 orrikoak, Edgar Allan Poerenak, adibidez. Gelan hasi eta buka dezakezu ipuinaren irakurketa; eta ikasleekin batera aztertzeko aukera ematen dizu gainera.

**Modu horretan, ordubeteko**

eskolan, narrazio baten gako guztiak azter ditzakezu.

Nik Kutxako tailerretan horrela egiten nuen. Aztertutako ipuinean ikusitako teknikari segika, mikronarrazio bat idaztea eskatzen nien ondoren. Hori da gutxi asko idazketa tailerretan baliatzen dudana dinamika.

Donostiako Literaktum jaialdian ere eskaini izan ditut tailerrak.

**Blog batean idazten duzu (serescritor.com) eta podcast bat ere baduzu [www.spreaker.com/show/serescritor](http://www.spreaker.com/show/serescritor) helbidean, ezta?**

Nire ikasle batek jarri zuen bloga martxan duela 10 bat urte. Hasieran berak bakarrik elikatzen zuen bloga eta ondoren niri eta nire lankide bati bertan idazteko proposamena luzatu zigun. 10 urte egin ditut bertan idazten. Hausnarketak edota liburu iruzkinak partekatzen ditugu bertan.


## Liburu gomendioak

Ana Merino ipuinaren zale amorratua da. “Azkenaldian, ipuin-liburuak irakurtzen ditut batez ere”. Idazle euskaldunen artean, Eider Rodriguez eta Iban Zaldia dira gehien estimatzen dituen narratzaileak.

Elkarrizketaren aitzakian, Ana Merinori hainbat gomendio eskatu dizkiogu. Irakurleentzat interesgarriak izan daitezkeen liburuak. Hauek ekarri ditu besapean:

■ *Como si existiera el perdón* (Mariana Travacio). “Argentinako literatura oso garai onean da. Mariana Travaciorekin batera Samanta Schweblin idazlea ere kontuan hartzekoa da”. *Como si existiera el perdón* nobela “laburra da, irakurterraza eta oso literarioa. Asko du ahozko-tasunetik. Istorioa iluna da, Pedro Páramo eta Juan Rulforen estilokoa”.

■ Javier Mariásen *Los enamoramientos*, Dino Buzzati idazle italiarraren *El desierto de los tártaros* eta Sara Mesa-ren *Cara de pan* dira elkarrizketara ekarri dituen beste liburu aipagarriak.



Como si existiese el perdón

Mariana Travacio

Yo me terminaba de vacacionar la sorpresa, según tirado sobre el piano, como haciendo desaparecer del litargo para comprobar que todo se quedaba en su sitio, pero el que me despertó fue el Tano. Me acordé con la convicción del apuro: Aquí se pasa, Manuel, despertate, y fue como si se me acabara el litargo en ese momento. Miré a mi alrededor y entendí todo de golpe: me estaban matando.

**“Como si existiera el perdón nobela laburra da, irakurterraza eta asko du ahozko-tasunetik”.**

**Antxeta**  
TABERNA  
egunero irekitzen dugu!  
· eguneko menua · asteburuko menua  
· oilasko erreak, ogitartekoak, razioak...  
paellak enkarguz!  
943 54 43 12 Zubiaurrenea 6, Usurbil.

  
**EROSKI/city**  
kale Nagusia 10, USURBIL  
943 361182

  
**JUANTXO**  
BURDINDEGIA  
Zubiaurrenea 8  
943 370 008

  
**Otar-Goxo**  
Elkagaiak  
Zubiaurrenea, nº2  
943 36 55 81  
20170 Usurbil



# NOAUA.eus web orrialdeak bisita ugari jaso zituen 2022. urtean

**N**OAUA! herri aldizkari-ko noaua.eus web orrialdeak sasoi onean segitzen du. Pandemiak bisita kopuruaren igoera nabarmena ekarri zuen duela bi urte. 2022an gaitzaren ondorioak nabarmen arindu baziren ere, noaua.eus web orrialdeak aurreko urteetan pilatutako audientziari eutsi zion. Sare sozialetan ere datuak baiko-rrak dira. Zabalik ditugun profil denetan igo da jarraitzaileen kopurua.

## Azken hiru urtetakoak, inoizko onenak

Bisita kopuruak gora egin zuen pandemia garaian. Etxetik ezin atera eta informazio gosea, horiek izan ziren orduko igoeraren gako nagusiak.

2022. urtean ordea, pitin bat jaitsi zen noaua.eus web orrialdearen audientzia: %4a. Dena den, inoizko daturik onenak pilatu ditugu azken hiru urteen jarduera kontuan hartzen badugu:

2022: 156.372 bisita.  
2021: 163.074 bisita.  
2020: 146.250 bisita.  
2019: 102.227 bisita.



Web orrialdeak aurreko urteetako audientziari eutsi zion 2022. urtean. Halaber, jarraitzaileen kopurua igo egin zen NOAUAlren sare sozial guztietan.

### NOAUA.EUS

**Erabiltzaile edo irakurle kopuruak gora egin zuen. Aldiz, ikusitako orrialdeen kopurua pitin bat jaitsi zen 2022. urtean**

### Erabiltzaile kopuruak, gora

2022an, 46.452 erabiltzaile edo irakurle hurbildu ziren gure web orrialdera. 2021ean gu-

txiago izan ziren, 44.783. Beraz, %3'73 igo da erabiltzaile kopurua.

Erabiltzaile berrien kopuruak ere gora egin du. 2021eko datuekin alderatuz, %4,96 igo da bisitari berrien kopurua.

### Ikustaldiak mantendu egin dira

Ikusitako orrialdeen kopurua aldiz, mantendu egin da. 2022: 318.589 orrialde.

2021: 322.712 orrialde.  
2020: 293.996 orrialde.  
2019: 230.310 orrialde.

## Sarean eta paperean

Jende asko sare sozialen bitartez ailegatzen da noaua.eus web orrialdera.

Elkar-eragile dira hortaz, noaua.eus web orria eta sare sozialak (twitter/noaua, facebook/noaua, youtube.com/noauatb, instagram.com/noauaastekaria/).

Horren erakusgarri dira sare sozialetako audientziak. Jarraitzaileen kopuruak gora egiten segitzen du eta orokorra da; gure sare sozial guztietan eman den fenomeno da (ikus azpiko taula).

## NoauaTB bideoteka

Gure web orrialdean bada NoauaTB izeneko atala. Bideoteka funtzioa betetzen du eta atal honen eskaintza ere gero eta handiagoa da. 2022. urtean 404 bideo-pieza sareratu eta noaua.eus web orrialdearen bitartez zabaldu genituen.

Albisteei dagokionez, astero batuz beste 31 albiste plazaratu genituen noaua.eus-en.

## Gure sare sozialek gero eta jarraitzaile gehiago dituzte

### facebook/noaua

NOAUA!ko erredakzio taldeak Facebooken duen profilak 1.746 jarraitzaile zituen 2022. urte amaieran.

■ 2021ean, 1.658 jarraitzaile.  
■ 2020an, 1.613.  
■ 2019an, 1.516.  
■ 2018an, 1.420.  
■ 2017an, 1.377.  
■ 2016an, 1.242.  
■ 2015ean, 1.016.  
■ 2014an, 886.  
■ 2013an, 771.  
■ 2012an, 645.

### twitter/noaua

NOAUA!ko erredakzio taldeak Twitterren duen profilak 1.524 jarraitzaile zituen 2022. urte amaieran.

■ 2021ean, 1.481 jarraitzaile  
■ 2020an, 1.420.  
■ 2019an, 1.295.  
■ 2018an, 1.182.  
■ 2017an, 1.085.  
■ 2016an, 954.  
■ 2015ean, 755.  
■ 2014an, 643.  
■ 2013an, 487  
■ 2012an, 313.

### instagram/noauaastekaria

■ 2022an, 1.131 jarraitzaile.  
■ 2021ean, 1.029.  
■ 2020an, 892.  
■ 2019an, 616.

### youtube/noauatb

2022. urtean, 562 harpidedun. Pilatutako ikustaldiak: 577.892.  
■ 2021ean, 492 harpidedun eta 501.151 ikustaldi.  
■ 2020an, 433 harpidedun eta 450.984 ikustaldi.  
■ 2019an, 324 harpidedun

eta 397.733 ikustaldi.

■ 2018an, 252 harpidedun eta 317.309 ikustaldi.  
■ 2017an, 173 harpidedun eta 235.004 ikustaldi.  
■ 2016an, 101 harpidedun eta 155.918 ikustaldi.  
■ 2015ean, 49 harpidedun eta 93.209 ikustaldi.  
■ 2014an, 29 harpidedun eta 58.038 ikustaldi.  
■ 2013an, 15 harpidedun eta 37.007 ikustaldi.  
■ 2012an, 5 harpidedun eta 11.567 ikustaldi.

# Andatzako errotarriak ezagutzeko ibilbide berria

**P**R-GI 216 kodea du eta marra hori eta zuriekin seinalezatua ikusi ahal-ko dugu aurrerantzean. Andatzako eta Usurbilgo lehen mendi ibilbide homologatua dugu. “Errotarren Bidea” izena ezarri diote, apropos noski, Andatzan dugun ondare aberatsaz gozatzeko aukera eskainiko digu eta.

“Errotarren ofizioa Andatzan historikoki egin izan den ogibidea da. Aztarnak oraindik mendian daude eta egin den ikerlanari esker ezagutu dugun altxor hau ezagutzera emateko mendi ibilbidea da”, azaldu zuen Ibon Goikoetxea udal ingurumen teknikariak, ibilbide berri honen aurkezpenean.

Gipuzkoako Mendi Federazioarekin eta Foru Aldundiarekin lankidetzan zabalduko ibilbide zirkularra da errotarriena, aipatu mendia inguratzen duen 8,7 kilometrokoa (549 metroko aldaparekin), hiru ordu eta erdi inguruan osatu daitekeena. Udal teknikariak berri eman zuenez, abiapuntu eta helmuga bera du; Urdaiaga goialdea hain zuzen. Puntu hau seinalezatua du Usurbilgo Udalak. Bidean zehar, hainbat errotarri eta harrobi ikusi ahal-ko ditugu. “Seinaleak hobetzen joango gara pixkanaka”, ohar-tarazi zuen udaleko ingurumen teknikariak. Gaurkoz, ibilbide zehatza ezagutu dezakegu 650usurbilbizi.eus turismo eredu berriari lotutako web-



Aurreko astean aurkeztu zuten ‘Errotarren bidea’. Andatzan bertatik bertara dugun ondarea ezagutzeko aukera eskaintzen digu.

## ERROTARRIEN BIDEA

**Ibilbide zirkularra da errotarriena, Irisasi edo Andatza inguratzen duen 8,7 kilometrokoa (549 metroko aldaparekin), hiru ordu eta erdian osatu daitekeena. Udal teknikariak berri eman zuenez, “abiapuntu eta helmuga bera du; Urdaiaga goialdea”**

gunean klikatuta. Horrez gain, “epe motzean Gipuzkoa Naturan ere” eskuragarri izango da “Gipuzkoako beste mendi ibilbideekin batera”.

### Errotarri bat Potxoenean

Ibilbide horretan ikus daitekeen

eta bertan zegoen errotarrietako bat, txikiena eta zaharrena izan daitekeena Potxoenea barruan duzue ikusgai, Irazu kalean dagoen leihoetako baten parean, Txiriboga ondoan kokatu dute; bestelako turismo eredu bat sustatzeko “650 Usurbil Bizi” egitasmoaren baitan, Usurbilgo altxorak ezagutarazteko sustatu nahi den ibilbidean zehar “geldiune bat izan dadin”, Ainhoa Arrozpide udal zinegotziak agerraldi berean azaldu zuenez.

Herriko ondarea zaindu eta ezagutarazteko Udalak duen konpromisoaren beste adibide bat da honakoa udal gobernu taldearen esanetan; eta “650 Usurbil Bizi” egitasmoa ere horren isplua da. “Herrian du-

gunari balioa aitortu eta ezagutaraztea dugu helburu”. 14 Usurbil zehazten dituen eskuorria argitaratua dute. Bertan, “nola ez, ondarearen Usurbil ere kokatua dago”.

Aranzadi Zientzia Elkarteak kideen laguntzaz, xehetasun gehiago jasotzeko turismo eredu berritzailearen webgunera bideratuko gaituen QR kodea duen identifikazio fitxa bat erantsi diote Potxoeneko errotarriari, herrikide nahiz bisitariak bere “ezaugarriak ezagutu ditzaten”. Kasu honetan, txikitasan duen balioa ikusteko. Zatiaundi erreka ondoan aurkitu zuten errotarri honek “60 zentimetroko diametroa du, eta tamaina da hain zuzen ere, errotarriaren antzinatasunaren lehenengo aztarna ematen diguna. Mendeak aurrera egin ahala errotarri handiagoak egiten hasi ziren, errotarren ekoizpena handitzeko asmoarekin. Beraz, zenbat eta txikiagoak zaharragoak dira”. XV. edota XVI. mendekoa izan daitekeela uste du Aranzadik. “Errotarriaren materiala silizezko konglomeratua da, eta harriaren geologia Kretaziko Goikoa-Zenomaniarra da”, iragan asteko prentsaurrekoan argitu zuten. “Altxor garrantzitsua, beraz”, Arrozpideren esanetan.

Egitasmo honen baitan, aipaturiko nobedadez gain, liburuxka bat argitaratzeko da Udala paperean, 650usurbilbizi.eus eta usurbil.eus atarietan ere eskuratu ahal-ko dena.

## “Andatza mendia, bitxi arkeologikoa”

Potxoenean ikusgai jarri duten errotarren bidea, gai honi buruz Usurbilen eginiko lan-ketan oinarritua dago. Aranzadi Zientzia Elkarteak kide Joseba Alonsok eta Javier Castrok, Asier Agirresarobe herrikidearen laguntzaz eginiko azterla-

nean, zehatzago esanda. 2020. urte amaieran aurkeztu zituzten emaitzak.

### 24 harrobi eta 129 errotarri

Castroren esanetan, “Andatza mendia bitxi arkeologikoa da, errotarren materialagatik

eta aurkitutako kopuruagatik”. Errotarri eta mugarren bueltan eginiko lan-ketan azaldu zuten, 24 harrobi eta 129 errotarri identifikatuak dituzte Andatzan. Eta gehiago, aurrerago. “Horrez gain, ehunetik gora dokumentu ere topatu zituen

artxiboetan. Gogoan izango duzuen, 2021eko irailean aurkeztu genuen Orreagan 1389ko dokumentu historiko bat. Orreaga eta Zizurkilen arteko ebazpen dokumentua da, Andatzako lurren jabetzaren ingurukoa”.

# Irisasi BTT Hotzak Akabatzen probarako dortsalak amaitu dira

Irisasi BTT Hotzak Akabatzen probarako antolakuntzak zaleen esku jarritako dortsalak agortu dira eta itxarrote-zerrenda osatzen hasi dira orain. Honenbestez, urtarillaren 25era arte inskripzioa bideratzen duenak jakinarazpena jasoko du baldin eta plazaren bat eskuratzeko zortea badu. Bizikleta martxa igande honetan izango da, goizeko 9:00etan hasita.

25 euro ordaindu behar dira Irisasi BTT Hotzak Akabatzen proban parte hartzeko. Dena den, dortsal denak agortu dira eta azken orduan ibili direnak itxarrote-zerrenda batean egon beharko dute zain.

## Hiru ibilbide aukeran

Partaideek hiru ibilbide izango dituzte aukeran:

- Motza: 22km + 600 m.
- Ertaina: 27km + 935 m.
- Luzea: 35km + 1150 m.

## “Bizikleta martxa hau ez da lehiakorra”

Antolakuntzak urtero moduan gogorarazia duenez, “martxa hau ez da lehiakorra eta parte hartzeko gutxieneko adina 16 urtekoa da; edota 14koa, baldin eta partaideak uneoro heldu arduradun bat eramaten badu ondoan”.

## Kaskoa jantzita

Segurtasunari dagokionean,



Igandeko lasterketako dortsalak bezperan eskuratu ahal izango dira Sutegin. Argazkia: Irisasi BTT hotzak akabatzen facebook orrialdea.

## IRISASI BTT

**“Dortsalak agortu dira eta azken orduan ibili direnek itxarrote-zerrenda batean egon beharko dute zain”**

kaskoa jantzita izatea derrigorrezkoa izango da. “Izen-emandako parte hartzaile guztiak erantzukizun zibileko aseguruarekin babestuta egongo dira, baldin eta egiazkoak diren izena emateko orriari emandako datuak”.

Irisasi BTT Hotzak Akabatzen bizikleta probak zehar-

katuko dituen bideak eta bazterrak errespetatzeko eskaera egin dute antolakuntzatik: “Proba herrikoi honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren jabetzakoa den eta kudeatzen duen ‘Irisasi’ Herri Onurako mendiaren bide eta gune naturalak zeharkatzen dituelako”.

## Dortsalak, bezperatik Sutegin eskuragarri

“Igandeko pilaketak ekiditeko eta dena bere orduan joan dadin, ahal duzuenok dortsala larunbatean jasotzea eskertuko genizueke”, eskaera horixe luzatu dute antolatzaileek.

■ Larunbat arratsaldean: 16.00-19.00 artean.

■ Igande goizean: 8.45ak arte.

## Txirindularientzako oharrak:

■ Dortsala egokitu zaionari korreoa begiratu edo kronoak.com atarian kontsultatu. Dortsalarekin batera txalekoa egongo da.

■ 8:45erako prest egotea komeni da.

■ Laguntzaileak egongo dira ibilbide osoan. Istripua izanez gero, edo larrialdi kasuetarako, DYaren telefono zenbakira deitu: 943 46 46 22.

■ Bizikletak garbitzeko mangarera Oiardo kiroldegi ondoan izango dira.

■ Dutzak Oiardo kiroldegian. Botak jantzita ez sartu.

## Aldaketak ibilgailuen trafikoan eta Lurraldebusen zerbitzuan

Proba hau tarteko, Udaltzaingotik NOAUA!ri jakinarazi dioenez, 8:30-14:00 artean Santuenetik Zubietarako biderearen hasiera eta Oxtapeko sarrera itxita egongo da ibilgailuen joan etorrientzat, baita handik hasi eta Eliza parera arteko Kale Nagusiko tarte ere. Ibilgailuak San Inazio aldetik sartu edota atera ahalko dira. Donostia aldetik datorren Lurraldebus zerbitzuaren geltokia ere bertan kokatuko da.

## Otsailaren 20an, Xake Topaketa udal liburutegian

Usurbilgo Sutegi udal liburutegiak xake topaketa bat antolatu du otsailaren 20rako (Inauteri astelehenerako). Plaza kopurua mugatua izango denez, alde zurretik eman behar da izena liburutegian bertan.

Otsailaren 20a astelehena da, baina Inauteriak tarteko, ikasleek jai izango dute. Xake topaketa udal liburutegian egingo da eta arratsaldeko 17:30ean hasiko da.

Ekimen hau adin guztietako pertsoneri zuzendua dago,

haur, gazte zein heldu. “Baldintza bakarra, xakean jolasten jakitea da (bakoitza bere mailan, noski)”, udal liburutegitik aditzera eman dutenez.

## Plaza kopurua, mugatua

Xake Topaketa honi buruzko

xehetasun gehiago eskainiko ditugu datorren astean. Dena den, kontuan izan aurretik eman behar dela izena. “Zenbat izango garen alde zurretik jakin beharra daukagu, dena behar bezala antolatzeko”.

## Ziortzak hiru eguneko irteera prestatu du LH5 eta LH6ko ikasleentzat

Ziortza Gazte Elkartek antolatzen dituen ekin-tzetara gero eta gazte gehiago hurbiltzen dira. Adin ezberdinetakoak hurbildu ere. Horregatik, eskaintza ahalik eta gehien zabaldu asmoz, LH5 eta LH6ko ikasleentzako ere irteera bat antolatu dute. Apirilaren 11tik 13ra, Aste Santuko oporraldi egunetan.

Zarauzko Igerain aterpetxean hiru egun igarotzeko proposamena luzatu diete Ziortzakoek adin horretako gaztetxoei. Apirilaren 11n goiz partean abiatu eta apirilaren 13an arratsaldean bueltatuko dira. Tarte horretan, “ekintzez beteriko programaketa zabalaz gozatzeko aukera izango dugu. Beraz, elkarbizitzan parte hartzerantz animatzen zaituztegu, primeran pasako dugu!”.

### Zarauzko Igerain aterpetxean

- Noiz: Apirilaren 11tik 13ra.
- Non: Igerain aterpetxean (Zarautz).
- Nori zuzendua: LH5 eta LH6ko gaztetxoei.
- Antolatzailea: Ziortza Gazte Elkartea.
- Prezioa: 60 euro, bi gau eta otorduak barne (lehenengo eguneko bazkaria etxetik era-



Apirilaren 11tik 13ra Zarauzko Igerain aterpetxera joango dira. Izen-ematea osatzeko, QRa eskaneatu eta galdetegi bat zabalduko zaizu. Bete eta kito.

### ZIORTZA GAZTE ELKARTEA

**“Izena ematen duten gaztetxoen gurasoekin bilera bat egingo dugu informazio gehiago helarazteko: irteera zein itzulerearen ordu zehatzak, eraman beharrekoa eta abar”**

man beharko da). Garraioari dagokionez, baliteke garraio publikoa erabiltzea aterpetxera gerturatzeko, kasu honetan kostu honen ardura ez luke Ziortza Gazte Elkartek hartuko.

### Izen-ematea

Urtarrilaren 25ean hasi eta otsailaren 6an amaituko da izen-ematea. Beraz, izena eman nahi

baduzu ondorengo estekako galdetegi bete: <https://forms.gle/E6hGU47g2SXEG9Gp8>.

Plaza mugatuak direnez, “eskaintako plaza guztiak betetzean, ondoren izena ematen dutenek elkarbizitzara etortzeko aukerarik ez lukete izango. Plazak izen-ematearekin batera esleituko dira”. Beraz, ez da zozketarik burutuko.

Behin izen-ematea itxita, irteeraren aurretik, izena eman duten gaztetxoen gurasoekin bilera bat egingo dugu informazio gehiago helarazteko.

Izen-ematea errazteko QR bat sortu du Ziortzak (albiste honen argazkian erantsia dagoena). Eskuko telefonoarekin “eskaneatu eta zuzenean elkarbizitzan izena emateko bete beharreko galdetegira eramango zaitu”.

## “Zaharrak gara eta libre” hitzaldia

Usurbilgo Udalaren, Emagin, Matiaeren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren hitzaldi zikloaren baitako hirugarren saioa ostiral honetan izango da arratsaldeko 18:00etan Potxoenean. Miren Aranguren (Emagin elkarte), Mari Luz Esteban (EHUko irakaslea) eta Ruth Iturbide (NUPeko irakaslea) ariko dira hizlari lanetan. Ekitaldirako gonbidapena aurretik eskuratu behar da: [gizarte-zerbitzuak@usurbil.eus](mailto:gizarte-zerbitzuak@usurbil.eus) 943 377 110 [usurbil.eus/zaintza-azoka](http://usurbil.eus/zaintza-azoka)

## Lanbide Heziketan sartzeko sarbide proba libreak

Otsailaren 10era arte Lanbide Eskolan sartzeko sarbide proba libreak matrikulatzeko aukera izango da.

Ate irekien jardunaldiak ere iragarri ditu Zubietan kokaturiko ikastetxeak. Lehena, martxoaren 9an: 16:30ean Goi Mailakoa, 18:00etan Erdi Mailakoa.

Informazio gehiagorako: [lhusurbil.eus](http://lhusurbil.eus) 943 364 600 [eskola@lhusurbil.eus](mailto:eskola@lhusurbil.eus)

## Helduen Eskolan matrikulatzeko aukera

18 urtetik gorako herritarrei zuzenduriko doako hezkuntza egitasmoa dugu HHI. Oinarrizko kultur formakuntza eskaintzen dute eta horretaz gain DBHko titulua eskuratzeko ikastaroak, euskara tailerrak eta gaztelania atzeritarrentzat. Izena emateko bi zenbaki hauetako batera deitu: 943 37 64 43/ 943 366 608.

## Kazkabarrak zuritu zuen herria

Urtarrilaren 17an haize bolar da bortitzek eragindako kalteei eta erria nola hazten zihoan begira ginen. Biharamunerako elurra oso behean iragarria zegoen. Herriko txokoak zuritu zituen bai, baina ez elurrak, kazkabarrak baizik.



Kazkabarrak bazterrak zuritu zituen urtarrilaren 18an.

# Kutsadura hazten doa erraustegiaren bueltan

Iragan igandean Usurbildik leke zutabe handia ikusi zitekeen. Zubietako erraustegia urtarilaren 22an isurtzen ari zena. Ohikoa bilakatu da aipatu planta modu horretan ikustea, baina ez da sarritan ikusi igandeko adinako tamainakoa. Kutsadura airetik isurtzen du bai erraustegiak, baina lurzorura ere begiratu beharra dugula ohartarazten digute azken urteotan Erraustegiaren Aurkako Mugimendua Toxicowatch fundazio herbehereetarrarekin lankidetzan egiten ari den urteroko kontrol herri-tarraren emaitzek.

2021ean eginiko azterlanari buruzko xehetasunak aurkeztu dituzte berriki Potxoenean. Iaz, urte garai berean, uda amaieran eginiko datu bilketaren emaitzak urtebete barru ezagutuko ditugu.

2021ekoek aurreko urteetan izan den joera berretsi dute. Erraustegi inguruko goroldio eta oilategietako arrautzak baliatu dituzte neurgailu gisa. Bertan metatzen doazen gai toxikoen bilakaera aztertzen dute urtero. Gogoan izan, ama-esnea ere ikertu izan dute.

## Dioxinak lurperaino

Urtez urte emaitzak okerragotzen doaz, erraustegiaren bueltan kutsadura hazten, hala diote egiten ari diren azterlanen emaitzek. Tartean da Malen Azpiazu Zubeldia kimika



Erraustegiaren Aurkako Mugimendua Toxicowatch fundazio herbehereetarrarekin lankidetzan egiten duen urteroko kontrolaren berri eman zuen Potxoenean.

## METAL ASTUNAK

**Goroldioetan metatzen doazen toxikoak neurtu ditu Malen Azpiazuk, "airean dagoen kutsadura argitzeko". Zenbait metal astunetan igoera nabarmena izan dela ondorioztatu du**

fakultateko ikasle ohi eta herri-kideak eginiko "Metal astunen determinazioa erraustegiaren inguruko goroldio laginetan" ikasketen amaierako lana. Go-

roldioetan metatzen doazen toxikoak neurtu ditu Azpiazuk, "airean dagoen kutsadura deduzitzeko". Zenbait metal astunetan igoera nabarmena izan dela ondorioztatu du.

## Aldameneko oilategiak

Zubietako plantatik hurbil dauden hiru oilategietan bildutako datuak aipatzeko modukoak dira bestalde. Bi erraustegiaren iparraldean kokatuak daude, hirugarrena hegoaldean, Andoain inguruan. Iparraldeko oilategietako arrautzetan "oraingoz

aldaketa nabarmenik ez" dela izan ohartarazi dute Erraustegiaren Aurkako Mugimenduko ordezkariak. Hegoaldekoan, aldiz, bai; "oso balio altuak dioxinetan", 2021eko azterlanaren arabera. Ez da kasualitatea, ipar parteko haizea sarriago izaten dugun inguruotan. Hailere, Toxicowatch-etik "jarraipen handiagoa egin behar dela diote", Potxoeneko hitzorduan ohartarazi zuten, kutsaduren handitze hau "beste eragin batengatik izan daiteke" eta. Sedimentuetan igoera nabarmenik ez dute aurkitu.

## "Erreka bat deuseztera doaz"

Airetik lurrazalean pilatzen doa kutsadura, eta lurrazaletik lurrazpira filtratzen doa. "Dioxinen kutsadura lurpeko uretan handia zen 2021ean", berri eman dute Erraustegiaren Aurkako Mugimendutik. Adi, kontuan izan; datuok,

pasa den uztailan izandako kutsaduraren aurrekoak dira.

Eta lurrazpitik besteak beste inguruotako erreka eta ibaietara hedatzen doa kutsadura. Arkaitzerreka horren lekuko. 2020ko maiatzean erraustegitik izandako amo-

nio isuriak ehunka arrain eta aingira hil zituen. Gertaerak arrainak desagerrarazi zituen. Pasa den uztailan aldiz, erreka apartsu eta gorritsu ikusi ahal izan genuen. Errekara isurtzen ari diren kutsadura itsasora desbideratu asmo dute

orain. "Erreka bat deuseztera doaz", zioten Potxoeneko ekitaldian. Momentuz, urtez urte datuak biltzen segi asmo dute. "Urte gehiago behar ditugu datuok finkatzeko", diote Erraustegiaren Aurkako Mugimendukoek.

# Hamar urteotako udal aurrekontu dirutsuenek zaurgarritasuna izango dute lehentasun

Azken hamarkadako “aurrekontu altuena”, 13.218.200 euro izango ditu herri honek aurreko urteen ildotik, 2023ko erronkei heltzeko. Iaz baino %2,2 gehiago, 284.200 euro gehiago, urte amaieran hasieraz eta gehiengo osoz (EHBildu alde, EAJ aurka, PSE abstentzioa) onartu zituzten udal aurrekontuei esker. Jendaurrean dira hamabost lan egunez, urtarrilaren 17az geroztik. Tarte honetan erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betiko onartuko dituzte.

13,2 milioi euroko udal aurrekontuak beraz, baina udal gobernu taldetik ohartarazi dutenez halere, “urteak aurrera egin ahal ez dugu baztertzen Udalaren gerakina erabiltzeko aukera, beste inbertsio batzuk bideratu ahal izateko”. Neurri prebentibo gisa gainera, “100.000 euro gorde ditugu, aurrekusi gabeko gastu edo egitasmoei aurre egiteko. Berriz ere, aberastasunaren birbanaketa justuagoa eta zerbitzu publikoen unibertsalizazioa helburu, iaz martxan jarritako hobari sistemari eusten diogu. Era berean, bigarren urtez, gizarte laguntza propioek ere bere lekua izango dute aurrekontuetan, batez ere gure herrira iritsi berri direnei eta



Udal aurrekontuetako gorakada foru funtsetik jasotako finantziazioaren eta enpresa elektrikoek ordaindu beharreko tasaren igoerak eragin du.

## EH BILDU

**“Aberastasunaren birbanaketa justuagoa eta zerbitzu publikoen unibertsalizazioa helburu, iaz martxan jarritako hobari sistemari eusten diogu”**

bazterketa egoera larrian egon daitezkeen herritarrei urgentziako laguntza puntualak eman ahal izateko”.

## Estaldura soziala handitzeko apustua

Osasun krisialdian murgildu ginenetik EHBilduk finkatua duen lehentasun nagusiari eutsiko dio aurten; “kolektibo eta herritar zaurgarrienak babestea eta laguntzea. Estaldu-

ra soziala handitzeko apustua egin genuen orduan, eta bide hori jorratzen jarraitzen dugu”.

## Aurrekontuaren kopuru handitzearen hiru faktoreak

Udal aurrekontuetan izan den gorakada foru funtsetik jasotako finantziazioaren eta enpresa elektrikoek ordaindu beharreko tasaren igoerak eragin du. Baita udal gobernu taldearen esanetan, ezohikoa izan den Zapategiko hirigintza aprobetxamenduari lotuta jasotako diru-sarrerak. Aipatzekoa baita, aurtengo ordenantza fiskalei KPIa %10aren bueltan zela %1,5eko igoera aplikatu izanagatik jasotakoa, “zerbitzu publikoei eutsi ahal izateko”. Gogoan izan, iazko hobarien eskaintza zabalari eutsiko dio-

tela aurten. Hala, 1.615.023 euroko inbertsio gaitasuna izango du Udalak.

Pertsonal gastuetara bideratuko dituzte bestalde, 4.602.570 euro, udal aurrekontu osoaren %34,82, soldate-tan aplikatuko duten %3,5eko igoerari, egonkortze legearen aplikazioari, edota etxez etxeko zerbitzu eraberritua kudeatzeko langilearen kontratazioari aurre egiteko.

## Milioi bat euro dirulaguntzetara

Aurrekontuekin batera, 2023-2025 urte arterako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa ere onartu zuten urte amaierako udalbatzarrean. Aurtengora begira, 1.097.663 euro bideratuko ditu Udalak laguntza lerro ezberdinetara, “aurrekontu osoaren %8,3”. Oraingoan, “kulturgintzan herriko elkar-teei bideratutako dirulaguntza lerroa 25.000 eurotan handituko dugu, pandemia aurretik zuen kopurura itzuliz. Modu berean, zahar egoitzetako dirulaguntza hitzartuek ere, 10.000 euroko igoera izango dute”. Ildo beretik, Udalak Zumarte Musika Eskolarekin, Zirimara egitasmoarekin, NOAUA! Kultur Elkartearekin eta Hurbilagorekin dituen hitzarmenen baitako diru ekarpena gehituko du.

## Txirikordari buruzko bilera berri bat larunbatean Potxoenean

Txirikordari buruko zailtasunak argitu nahiz xehetasun gehiago eskaintzeko bilera deitu du Udalak. Larunbat honetan, hilaren 28an, goizeko 11:00etan Potxoenean. Hitzordurako gonbidapenak aurrez eskura daitezke [usurbilkultura.eus](http://usurbilkultura.eus) plataforman.

Ugartondoko belaunaldietako etxebizitza komunitarioari lotutako ordenantza behin betiko onartu duela berri eman zuten Usurbilgo Udalak hilaren 18ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, jendaurrean egon den tartean alegaziorik ez baita aurkeztu. Ugartondon lanak amaitzear dituzten eraikineko

bizilekuen esleipen prozesuaren nondik norakoak edota pisuhautetan bizitzeko onuradun izateko betebeharrak zehazten ditu.

Izen-ematea otsailean zabaltea aurrekusi du Udalak. Argibide gehiago eskainiko dituzte larunbat honetako hitzaldian.



Bilera goizeko 11:00etan hasiko da.

# Udal taldeen ekarpenak

Oposizioko taldeak edota herritar eta eragileak gonbidatu zituen udal gobernu taldeak azaroan zehar auzoz auzo deitu zuen udal aurrekontuen aurkezpen errondara, informazioa partekatu eta ekarpenak biltzeko.

Urte amaierako osoko bilkuran 2023ko udal aurrekontuon aurka bozkatu zuen EAJK. "Aurrekontu hauek irudikatzen duten Usurbil ez dator bat guk hainbat urteetan proposatu dugunarekin". Egin dituzten hainbat ekarpen ez dituztela kontuan hartu adierazi zuen Josune Urkola bozeramaileak. Besteren artean, landa eremuko komunikazio digitala hobetzea, herri bideen diagnosia egitea, sakabanatutako izendapen sistema hobetzea... eskatu zuten. Baita Santuenean zubi berri bat egitea proposatzen dute, Etxealdia eta Kale Nagusiaren egokitzapena, kanpoko igerile-



EAJ aurrekontu proposamenaren aurka azaldu zen. PSE-k abstentziora jo zuen.

## EAJ-PNV

**"Aurrekontu hauek irudikatzen duten Usurbil ez dator bat guk hainbat urteetan proposatu dugunarekin"**

kuak, frontoia edota aurreko urteetan eskatu izan dituzten padel pistak, Askatasuna plazako aparkalekuak, bizikidetza plana... "EAJrentzat usurbildarren egungo eta etorkizuneko beharrak bermatzea da aurrekontuen helburua. Udalerri iraunkorra,

ingurumena zaintzen duena, soziala eta ekonomikoki egokia eraikiko duena". Horrekin batera, aurrekontuen inguruko dokumentazio nahikoa ez zutela jaso adierazi zuten.

## PSE: "Gure proposamen batzuk onartu dira"

PSE-tik Patxi Suarezek "gure aurrekontuak izan ez arren", abstentituko zela iragarri zuen. "Bailioan jarri nahi dut aurrekontuen parte izana", zioen eta "udal gobernuaren jarrera geure hainbat proposamen onartzeko".

Udal gobernu taldetik, jeltzaleei aurrekontuei buruzko dokumentazio guztia eskuragarri dutela gogorarazi zioten. Ildo horretan, behar zutenaren inguruko proposamen zehatza egiteko gonbita egin zioten. Aurrekontuei buruz esandakoei dagokienean, ekarpenak partekatzeke udal gobernu taldetik eginiko aukera ez zutela baliatu. Urte amaierako osoko bilkuran bertan "egin dituzten ekarpenek zehaztapenik ez dute" adierazi zieten eta adostuta ere "urtebeteko udal aurrekontuekin ezinezkoa litzaiteke zuten proposamen guztiak gauzatea". Horregatik EHBildutik ziotenez, "zuen proposamena ez da bozkagarria".

PSE-ko ordezkariak agerturiko jarrera eskertu zuen udal gobernu taldeak. "Hainbat gaietan ez gaude ados, baina bi urteetan aurrekontuak landu eta adostasunera heltzea lortu dugu".

## 2023ko udal aurrekontua, zenbakitan

### Legealdi Planeko egitasmoak

- Zaintza ekosistema: 420.000 euro.
- 650 Usurbil Bizi: 197.000 euro.
- Emakumeen Etxea + Aniztasuna: 35.000 euro.
- Memoria eta bizikidetza: 30.000 euro.
- Haur eskolako eraikinaren hausnarketa: 18.000 euro.
- Trantsizio energetikoa: 132.000 euro.
- Aktibatzen plan estratejiko programen sustapena: 15.000 euro.
- Herri/Auzoak: 521.818 euro.

### Dirulaguntzak

- Guztira: 1.097.663 euro (aurrekontu osoaren %8,3a).

### Gizarte estaldura:

- Gizarte larrialdietarako laguntza: 90.000 euro.
- Gizarte larrialdietarako la-

guntza propioa: 10.000 euro.

- Eskola Kirolera sarbidea errazteko: 5.000 euro.
- Alokairurako diru laguntzak: 10.000 euro.
- Hobarien sistema.

### Berrikuntzak

- Kultur elkarteentzako: 90.000 euro (iaz baino 25.000 euro gehiago).
- Kultur sormenera: 15.000 euro.
- Jubilatuen elkarteak: 25.000 euro (iaz baino 10.000 euro gehiago).

### Inbertsioak

#### Herri jasangarria

- Usurbil 0.0: 23.000 euro.
- Efizientzia energetikoa: 42.000 euro.
- Natur intereseko lurren erosketa: 25.000 euro.
- Lur erosketa, Aginagako aparkalekurako: 22.000 euro.

- Etxealdiako urbanizazioa: 75.000 euro.

- Hobekuntzak Santuenean: 50.000 euro.

- Ur kontagailuak Santuenean: 18.000 euro.

- Haur Eskolako aldapa: 158.000 euro.

- Aginagako semaforoa: 14.000 euro.

- Elutxeko bidea: 160.000 euro.

- Zaborrontzien prototipo berria: 9.000 euro.

- Sopladoreen bateria berriak: 3.255 euro.

- Argiteria berritu: 90.000 euro.
- Zumartegi: 132.000 euro.

### Ongizartea

- Harane futbol zelaia berritzea: 250.000 euro.

- Lanbide Hastapeneko lokala egokitzea: 7.000 euro.

- Sukaldaritza eta ile-apaindegiko ikastaroetako ekipamendua

berritzea: 5.800 euro.

- Txirikordako ekipamendua: 157.000 euro.

- Kalezar-Matia igogailua: 150.000 euro.

- Eguneko Zentroko ekipamendua: 2.000 euro.

### Herri nortasuna

- Liburutegirako fondo berriak eskuratzea: 14.800 euro.

- Liburutegiko ekipo eta al-tzariak: 2.000 euro.

- Zubietako inbertsioak: 20.000 euro.

- Aginagako Eliza Zaharra: 20.000 euro.

- Potxoenea eta Sutegiko beharrak: 4.000 euro.

- Errioren Eguna: 15.000 euro.

### Udala herriaren zerbitzura

- Ordenagailuen erosketa: 25.000 euro.

- Oholtza berria: 50.000 euro.

# Aktibatzen plan estrategikoaren garapenean urrats berriak iragarri ditu Udalak

Sektoreko hainbat herri eragilerekin lankidetzan garatzen ari den Aktibatzen Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren plan estrategikoaren testuinguruari lotutako zenbait ekimenen berri eman du Usurbilgo Udalak aste hasiera honetan Oiardo Kiroldagian.

Batetik, Eskola Kirola- ren baitan LH 5 eta 6 mail- tako multikiroleko ibilbideari buruzko hausnarketa proze- suari ekitera doaz. Hainbat eragile (Usurbilgo Udala, NOAUA! K.E., Udarregi ikasto- la, Eskola Kiroleko nahiz Ziri- marako koordinatzaileak, talde sustatzaileko kideak, guraso elkarteetako kideak...) biltzen dituen mahai teknikoan jasotako kezkaren harira erabaki dute bilgune horretan bideratu duten hausnarketa herriarekin partekatzea.

Mahai tekniko horretan egi- ten dute besteak beste, Zirima- ra proiektuaren jarraipen eta eraldaketa lana. “Gaur egun, Usurbilen LH 5 eta 6 mail- tako multikirolen ibilbidean urte erdiz futboleko eta beste urte erdiz eskubaloian aritzen



Hitzaldi-solasaldi ugari iragarri dituzte otsailaren 1erako.

## OTSAILAREN 1ETIK AURRERA

### LH 5 eta 6 mailtako multikiroleko ibilbideari buruzko hausnarketa prozesua abiatuko dute

dira, eta jarduera hau generoka banatuta antolatzen dugu. Gal- dera ezberdinak sortu dira; alde batetik, generoka bana- tutako jarduera sustatu behar ote dugun edo ez, zer ote den egokiagoa. Edo bestalde, multi- kirolaren ibilbideko jarduera bi modalitate horietara murriztu behar den edo kirol aniztasun

zabalago baten baitan antolatu behar dugun gure eredia”.

Otsailaren 1ean hasiko den prozesuaren baitan, lehen saioan gai honi buruzko in- formazioa jasotzeko aukera izango da aditu talde baten eskutik. Bigarrean Usurbilgo errealitatearen berri emango dute; “plan estrategikoan jasotako galdetegiaren emaitzak eta LH 5 eta 6 mailtako ikasleei helaraziko diegun galdetegiaren” emaitzak aurkeztuko dituzte. Hartara, tokiko ereduaren “in- dargune eta ahulguneak iden- tifikatzen saiatuko gara”. Pro- posamen zehatzak landu asmo

dituzte hirugarren eta azken saioan. Hitzorduok noski, ire- kiak izango dira.

## Saioak Potxoenean Otsailak 1, asteazkena

■ 18:30 Hitzaldi-solasaldia: -“Kirol hastapena: espezializa- zioa vs kirol-aniztasuna”. Hiz- laria: Javier Yanci Irigoyen, EHUKo ikerlaria.

-“Gipuzkoako Eskola Kiroleko eredia”. Hizlaria: Unai Asur- mendi, Gipuzkoako Aldundiko Kirol Planifikazio teknikaria.

-“Aniztasuna Eskola Kirolean: zer dago jokoan?”. Hizlaria: Uxue Fernandez Lasa, EHUKo ikerlaria.

-“Usurbilgo Eskola Kirola- ren erroka EkitAktiboak”. Hizla- ria: Juan Aldaz Arregui, EHUKo ikerlaria.

■ Izen-ematea aurrez usurbil- kultura.eus plataforman.

## Otsailak 22, asteazkena

■ 18:30 Usurbilgo errealitatea, indarguneak eta ahulguneak.

## Martxoak 15, asteazkena

■ 18:30 Proposamen zehatzen lanketa.

## Herritarrak kudeatzaile

Prozesu hau abiatu aurretik, Oiardo Kiroldegiko erabiltzaileek nahiz herritarrek orohar, kirol materiala nola berri- tu erabakitzeko aukera izan- go dute otsailaren 3ra arte. Hasieraz onartuak dauden 2023ko udal aurrekontuetan 8.000 euroko partida bat erre- serbatu du Usurbilgo Uda- lak baliabideotarako. Baina azken hitza herritarrek izan- go dute. Aipatu diru kopurua nola xahutu, zenbateko hori nola banatu material ezberdi- nen erosketan erabaki ahalko

dute. Horretarako, Kiroldegian bertan formulario bat betetze- ko aukera izango da otsailaren 3ra arte, edo online ere osatu ahalko dute; erabiltzaileek ja- soko duten emailearen bidez baita. Formulario hauetan oi- narrituta erabakiko du Udalak kirol materialean egin beharre- ko inbertsioa.

### 2022ko inbertsioak

2022an, besteak beste, ho- nako inbertsio hauek bideratu zituen Udalak: saunan dutxa hotza, gimnasioan material be-

rria, erabiltzaileen segurtasuna hobetzeko sarrera-irteera tornu berriak eta segurtasun kame- ra, harrerako komun egokitua, Haraneko etxea berriz erabi- garri jartzea, boleiboleko tal- dearentzako pista egokitu eta instalakuntza jartzea, soinketa erritmikakoena lona gordetzeko espazioa, Haraneko gas deposi- tuaren aldaketa...”.

### ‘Zoru pelbikoa’ ikastaroa

Emakumeei zuzenduriko zoru pelbikoaren zainketarako lanketa teoriko eta praktikoa

abiarazi du Udalak. Aben- duan egin zuten hitzaldian 15 lagunek parte hartu zuten. Hamabost emakumerentzako lekua zegoen hilabete hone- tan hasi duten ikastaroan, baina 27 izan dira izena eman dutenak eta bi talde osatu di- tuzte. “Lan ildo hau ere plan estrategikoaren baitan koka- tzen da, guztiontzako kirola sustatzeko”. Udaletik jakina- razi dutenez, “orain arte par- te hartzen ez zuten hainbat pertsona ikastaro honetan egotea lortu dugu”.



**ETXEBIZITZA****Salgai**

Etxebizitza erosi nahi dut Usurbilen. 623467316.

Pisua salgai Munalurra kalean. 3 gela, komuna, sukalde eta egongela handiak, garajea, trasteleku, balkoia, terraza. 688 710 916.

**Alokairuan**

Usurbilen 2 edo 3 logelako etxea alokatu nahiko genukeen aita eta 13 urteko semea gara. 683 548 749.

Logela bila nabil Usurbil, Aginaga aldean. 643 830 772 (Luis).

Usurbilen logela bat alokatzen dugu neska edo emakume barentzako. 618032966

**MOTORRA****Salmenta, garajeak**

Munalurra 4 zenbakian lokal bat daukagu alokatzeko. 70 metro koadro ditu eta sarre-rako atea handia dauka materialak erraz sartu eta ateratzeko. 652765583

Bigarren eskuko Ford Focus Berlina Trend bost ateko ibilgailua salgai. Berria, zaindua, garajea egondakoa. 56.000 km. 125 zaldi. Gasolina. Aurreko bi gurpilak lau urtarotarako baliagarriak. 11.900 euro. 629 553 497 (Beatriz).

Gutxi erabilitako lau gurpil salgai (195/65R15 91H). 200 euro. 671 54 75 67.

Aginagan, Elutx kalean 30 m<sup>2</sup> garaje itxi bat salgai. 629 460 966

Marradun garaje plaza bat alokatzen da Kale Nagusian, Bizkarren. 687 406 209.

Ezinduentzako motorra salgai. 2018ko abuztuko motorra, gutxi erabilia. 625701616.

**LANPOSTUAK****Lan eskaintzak**

Laukote okindegian langile bat behar dugu lanaldi erdiz aritzeko. 634 401 171.

Lan egin nahi duzu zerbitzari bezala 40 orduko kontratu batenkin? Animatu eta deitu hona:

680483164

Batxilergoko lehen mailako ikasle bati euskaraz matematikako klase partikularrik eman-go dizkion pertsona baten bila gabilta. 608201745

Klase partikularrik emateko prest dauden zerranda osatzen ari da Udarregi Ikastola. 943 36 12 16.

Zerbitzaria behar dugu aste-buruetan, 12:00-19:00 artean lan egiteko Olarrondon. 626 686 036

Guria Tabernan sukaldari laguntzailea behar da asteburuetan lan egiteko. 677 20 87 44

Saizar Sagardotegian zerbitzaria behar da asteburuetarako, ostiral iluntzetik igande arratsaldera arte lan egiteko. 660788832.

Zerbitzariak behar dira Aginaga sagardotegian, urte osoan zehar astebukaeratan lan egiteko. 943 366 710.

Zerbitzaria behar da Atxega ja-

tetxean. 666 671 444

**Lan eskaerak**

Orduka edo jornada erdiz etxeko garbiketarik egiten ditudan 50 urteko emakume bat naiz. Interesatua bazaude deitu 643 576 129.

Pertsona helduak zaintzen edo etxeko lanak egiteko lan bila dabilen neska euskalduna bat naiz. 626 604 527

Haurrak zaintzeko eta ingeleseko klaseak emateko prest dagoen neska euskaldun gaztea. 697 46 55 55 (Olatz)

Kurtsuan zehar arratsalde zaurrak zaintzeko prest eta esperientziarekin. 695 184 179 (Ane)

Kurtsuan zehar klase partikularrik emateko edota haurrak zaintzeko lan bila nabil. Magisteritzan graduatua eta esperientziaduna. 679 219 805 (Iratzi)

Ikasturtean zehar umeak zaintzeko edota Lehen Hezkuntzako ikasleei klase partikularrik emateko lan bila nabil. 688645491 (Nahia)

Ostalaritzan edo pintura lanean zein igeltseritzan lan bila nabil. Urteetako esperientzia lehen mailako ofizial bezala eta ostalaritza munduan ere bai. Negozio propioa ere izan dut ostalaritzan. 657 683 762

Umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko lan bila nabil, orduka zein egun osoz. 624 509 470

**BESTELAKOAK**

Erloju digital bat aurkitu dugu Agerialdeko patiorako sarreran, Arratzain bideko espaloian. Erlojua beltza da eta pausoak neurtzen dituen horietakoa da. Galdu duenak Udaltzaingoa galdetu, bertan utzi dugu.

Abenduaren 28an Gabonetako Haur Parketik bueltan jantzita genuen zapatiletako bat (Adidas markakoa, beltza) beste norbaitena dela jabetu gara. Gure zapatiletako bat beste batekin jantzita eraman zuen. Inor honetaz jabetu bada deitu 687 779 669 telefono zenbakira.



**Zorionak Inaxio!** Urtarrilaren 24an egin dituzu 80 urte. Besarkada handi bat eta muxu bat familia osoaren partez!



**Zorionak Lurdes!** Muxu potolo bat familia guztiaren partez. Ostegun honetan dituzu 71 urte!!! Ondo pasa!



**Zorionak!** Gure etxeko gizontxoari zorionak eta 9 muxu handi. Asko maite zaitugu denok!

**Eskubaloi partidak**

**Allurralden, Andoainen:**

**Urtarrilak 29, igandea**

■ Ordua zehazteke.

Kadete neskak:

- Leizaran Urdiña.

- Usurbil KE.

**Usabalen, Tolosan:**

**Urtarrilak 29, igandea**

■ 12:00 Senior mutilak:

-Tolosa CF Eskubaloia B.

- Usurbil KE.

**Jubenil nesken taldea,**

**promozio fasean**

Usurbilgo jubenil nesken taldeak Euskal Ligarako promozio fasea jokatuko du Oiarde kiroldegian asteburuan zehar.

**Futbol partidak**

**Haranen:**

**Urtarrilak 28, larunbata**

■ 10:30 Infantil neskak:

Usurbil FT A-Añorga B

Usurbil FT B-Añorga A

■ 12:00 Kadete mutilak:

-Usurbil FT B

-Sporting de Herrera

■ 16:00 Preferente maila,

kadeteak:

Usurbil FT-Urola KE

**Urtarrilak 29, igandea**

■ 10:00-12:00 Futbol

Eskola.

■ 12:00 Jubenilak:

Usurbil FT-Urola KE B

**Joko Garbi****Txapelketa**

Asteburu honetan hasiko da lehia. Itzuli bateko ligaxkaren ondoren, finalak martxoaren 12ko asteburuan jokatuko dira.

■ Alebinak (Eskolartekoa), 4 bikote: Behar Zana 1, Behar Zana 2, Zubieta 1 eta Zubieta 2.

■ Infantilak (Errendimendua), 3 talde: Behar Zana, Txost 1 eta Txost 2.

■ Jubenilak (Klub artekota), 4 bikote: Behar Zana, Zubieta 1, Zubieta 2 eta Zubieta 3.

■ Nagusiak (Klub artekota), 5 talde: Behar Zana, Txost, Zubieta 1, Zubieta 2 eta Zubieta 3.

**Goardiako farmaziak**

**Osteguna 19** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

**Ostirala 20** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

**Larunbata 21** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Igandea 22** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Astlehena 23** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

**Asteartea 24** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Asteazkena 25** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

**Osteguna 26** GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

**Ostirala 27** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

**Larunbata 28** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

**Igandea 29** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

LARUNBATETAN,  
Usurbilgo bi farmaziak irekita  
egongo dira: 9:00-13:30

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**  
GOMEZ BRAVO, MARINA  
Kale Nagusia, 14 Hernani  
943 55 48 92

**Gainontzeko datak [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com) web orrian eta aplikazioan dituzue ikusgai.**

# Agenda urtarrila

## 27 ostirala

- **Zaintzari lotutako hitzaldi zikloa: "Zaharrrak gara eta libre".** 18:00etan Potxoenean. Hizlariak: Miren Aranguren (Emagin), Mari Luz Esteban (EHU), Ruth Iturbide (NUP).
- **Sareren elkarretaratzea.** 20:00etan Mikel Laboa plazan.

## 28 larunbata

- **Txirikordari buruzko informazio saioa.** 11:00etan Potxoenean.
- **Kantu-jira.** 12:00etan abiatuko dira Mikel Laboa plazatik.

## 29 igandea

- **Irisasi BTT Hutzak Akabatzen** 09:00etan Mikel Laboa plazan.
- **'Terra Willy: planeta ezezaguna' filma Aginagan.** 17:00etan Eliza Zaharrean. Sarrera doan.

## Animaziozko film bat eskainiko dute igande honetan Aginagan

Igande arratsaldean euskarazko film bat eskainiko dute Aginagako Eliza Zaharrean. *Terra Willy: planeta ezezaguna* animaziozko pelikula da eta adin guztientzako egokia. Arratsaldeko 17:00etan hasiko da proiektzioa eta doan izango da.

### 'Terra Willy: planeta ezezaguna'

- Eguna: urtarrilak 29 igandea.
- Ordua: 17:00etan.
- Non: Aginagako Eliza Zaharrean.
- Sarrera: doan.
- Sinopsia: Gurasoekin espazioan zehar bidaian dabilen mutil koskorra da Willy. Espazio ontziak istripu bat izan du ordea, eta larrialdi kapsula batean bertatik kanporatua izango da Willy. Gurasoen-



Willy, Buck eta Flashen abentura ikusteko aukera aparta igande honetan Aginagan.

gandik urrun, esploratu gabeko planeta basati batean lur hartuko du. Willyk gurasoak bilatzeko modua aurkitu beharko du orain. Ahalegin horretan, bidelagun izanango ditu Buck biziraupen robota eta Flash estralurtarra.

## Interneteko arriskuez Udarregi ikastolan

"Interneteko arriskuak eta ziberseguru jokatzeko aholkuak" solasaldia antolatuko du Hitz Aho Udarregi ikastolako guraso elkarteak ostegunerako, hilaren 26rako, 17:00etan Potxoenean. Urko Zurutuza Ortega izango da hizlaria.

## "Zaharrrak gara eta libre" hitzaldia Potxoenean

Ostiral honetan 18:00etan Potxoenean. Miren Aranguren (Emagin elkarte), Mari Luz Esteban (EHUko irakaslea) eta Ruth Iturbide (NUPeko irakaslea) ariko dira hizlari lanetan. Aurretik eman behar da izena (ikus 12. or).

### Datozenak



## Usurbil 1936 elkartearen web orrialdearen aurkezpena

Usurbilen 1936ko gerrari buruz egiten ari diren ikerketan zehar aurkitu dituzten pertsonen erreferentziak, dokumentuak, testigantzak eta datu ugari usurbil1936.eus web orrialdean jasoko dituzte. Web orrialdea otsailaren 3an aurkeztuko dute, 18:30etik aurrera Potxoenean. Antolatzailea: Usurbil 1936 elkarte.

## 'Filmak', Inauterietan mozorrotzeko gaia

'Ikus-entzunezkoak, filmak' izan da datorren Inauteri Festarako hautaturiko gaia. Ekin beraz, prestaketa lanei. Zuen ekarpenetatik erabaki du NOAUA! Kultur Elkarteak otsailaren 18ko jaialdirako mozorrotzeko aitzakia. Larunbat horretan egun osoko festa giroak herriko kaleak koloretatuko ditu. Xehetasun gehiago, datozten asteetan.

**eskura**  
elikadura eta dietetika aholkularitza

DIABETESA, HIPERTENSIOA,  
GIZENTASUNA, ELIKADURA  
ETA KOLESTEROL ARAZOAK

**688 843 696**  
Zubiaurrenea 1, 1c Usurbil



·EGUNEKO MENUA  
·KARTA  
·RAZIOAK  
·HANBURGESAK  
·BOKATAK

**ARTZABAL**  
BASERRIA · JATETXEA

[www.artzabaljatetxea.com](http://www.artzabaljatetxea.com)  

**943 36 91 39**

[www.noaua.eus](http://www.noaua.eus)  
USURBILGO ATARIA



# Ofizioen Gida



PLAKODUR

Eskaiola eta Pladurra

943 00 85 44 - 634 45 78 78



## URDAINTZI

eraikuntzak



649 43 54 75 / 76  
943 36 72 64

urdaintzi@euskalnet.net

· ERAIKUNTZAK · OBRAK  
· BERRITZE LANAK

Fax: 943 24 34 60  
Atallu pol. atallu, 28  
20170 - USURBIL

Josue  
Igeltseritza

606 37 21 05

Igeltseritza orokorra

Uraitz, s.l.

Igeltseritza  
Orokorra

Telefonia  
693 059 392

e-posta:  
uraitz@uraitz.com

Geltoki Kalea 15 behea, Lasarte-Oria

ITZIRA  
ERAIKUNTZAK

· gremioen koordinaketa  
· berritze lanak  
· sukaldeak  
· komunak

943 530 337  
607 119 313

errekatziki 7, USURBIL itzira@hotmail.es

IRUARKAITZ  
ERAIKUNTZAK, S.L.

· FATXADAK ETA TEILATUAK  
· ERAIKUNTZAK · BARRUKO BERRIKUNTZAK  
· URALITA KENTZEKO ENPRESA  
BAIMENDUA

630 90 02 79 AGINAGA

GAR  
GRUPO MONROY

BERRITZE ZERBITZU INTEGRALAK

943 53 72 38 - 628 45 78 39 - 628 91 72 15  
reformas@reformasmonroy.com

NAGUSIA 35, BEHEA USURBIL



Antonio  
URRUZOLA

AROTZEGIA

Tel/Fax: 943 376 415  
Astesasuain Industrialdea, 3

BARRENETXE

Salsamendi Arregi, Iñaki

AROTZEGIA

943 362 664  
Barren Etxe kalea ZUBIETA

USURBIL

J. R. IBARGOEN S.L.

ZURGINTZA-SUKALDEAK  
ALTZARI BEREZIAK

www.carpinteriaibargoien.arotzgi.net jr.ibargoien@arotzgi.net

943 36 14 48 - 676 45 31 76



ARGILAN

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

629 272 859  
943 361 380

BORDA-BERRI 5, baxua USURBIL

antenas  
Telemar

943 55 33 99  
info@antenastelemar.com

Elkano kalea 13, HERNANI

APARICIO

DEKORAZIOA ETA  
PINTURA LANAK

Tel. 943 36 60 59 628 883 943  
Pintopax, 3 - 3 B 20170 USURBIL



Enrique Alonso

ITURGINTZA  
GASA-BEROKUNTZA

Oro har libratze-lanak  
TB kamerakin hodi eta tximinien azterketa  
BAIMENDUTAKO INSTALATZAILEA

659 675 283

Iñaki  
Iturgintza

BEROKUNTZA · GASA · AIRE EGOKITUA  
ZORU BERO-EMALEA  
ITURGINTZA · ENERGIA BERRITZAGARRIAK  
info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com

Tfnoa.: 600 024 825

Zuri  
arrain  
iturgintza

TEL: 678 45 31 48 • 943 651 465  
zuriarraiturgintza@gmail.com

Rafa

iturgindegia

· ITURGIN LAN OROKORRAK · DUTXAKO HANPARAK  
· KONFINDATZAKO DREHIQAK · KOMUNEKO ALIZARIAK

Bordaberri kalea 1, 1 behea • @ 943 36 80 04

XORGA TXIBI S.L.

KRISTALDEGIA

· komertzial instalazioak  
· beira bikoitza · segurtasun beirak  
· dutxa-itxiturak eta irristailuak

943 37 17 33- 610 45 93 45

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA

maiz

hornigaikak

· TRESNERIA ETA ERREMINTAK  
· EGUR ETA AROTZ-LANETARAKO HORNIDURA

suministrosmaiz.com (ONLINE DENDA ERE)  
Ugaldea polig. 18, USURBIL 943 36 99 39



# ESKOLA KIROLA

## LH 5-6 MULTIKIROLA AZTERGAI

Otsailak 1.  
Hitzaldi-Solasaldia:

Kirol hastapena: espezializazioa vs kirol-aniztasuna  
Javier Yanci Irigoyen, UPV-EHUko ikerlaria

Gipuzkoako Eskola Kiroleko ereduak  
Unai Asurmendi, Gipuzkoako Aldundiko Kirol Planifikazio teknikaria

Aniztasuna Eskola Kirolean: zer dago jokoan?  
Uxue Fernandez Lasa, UPV-EHUko ikerlaria

Usurbilgo Eskola Kirolaren erronka EkitAktiboak  
Juan Aldaz Arregui, UPV-EHUko ikerlaria

Izen-ematea: [usurbilkultura.eus](http://usurbilkultura.eus)

Otsailak 22.  
Usurbilgo errealitatea, indarguneak eta ahulguneak.

Martxoak 15.  
Proposamen zehatzen lanketa.

\*Saio guztiak Potxoenean izango dira, 18:30ean.

